

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Gu Maria, Endika, Unai eta Miriam gara eta “Memu” da gure enpresaren izena. Ez dugu helburu bakarra, natura errespetatzeaz gain eta hari ahalik eta kalte gutxien egiteaz gain, bezeroek haien ekonomia kontrolatzea nahi dugu, hau da, funda eta mugikorretan hainbeste diru ez xahutzea lortu nahi dugu; horregatik, uste dugu gure produktuak, “air-case”- ak, aldaketa handi bat sortuko duela gizarte eta inguruarekiko.

Hori guztia dela eta, gure produktuaren baliozko proposamenak hainbat dira:

Orain arte inork ez du horrelako produktu berritzaile bat sortu eta hori izango da gure **nobedadea**. Merkatuan dagoen lehen *airbag*-dun funda da. Aurretik mugikorrek babesten dituzten hainbat funda egin dira, baina inoiz ez da sortu horrelakorik.

Erosle bakoitzaren gogo eta gustura **pertsonalizatuko** dugu. Horrela, bakoitzak gustukoa duen funda izango du, hau da, produktua erosterakoan, diseinuan parte hartu dezakete ahalik eta pertsonalizatuena izan dadin.

Orain arteko fundak ez bezala hauek %100ean murrizten dute mugikorra **apurtzearen arriskua**. Beraz, funda hau erosi ezker, guztiz ziur egon zaitezke mugikorra ez dela puskatuko erortzerakoan.

Funda gure web-gunean egoteaz gain, hainbat denda fisikoetan ere aurki ditzakezue, hau da oso **eskuragarri** eginez. Beraz, ez dadila aitzaki bat izan internet bidez bakarrik eros daitekeela.

Fundak duen teknologia berriaren ondorioz, oso **erabilgarria** da. Erosleak egin beharreko ekintza bakarra funda mugikorrean jartzea izango da. Ekintza erraz horrekin bakarrik gailua babestuta egongo da.

Eskaintzen duguna ezberdina da beste enpresekiko; nobedade bat eta etorkizun urbil batean erabili behar den produktu bat gara. Hori dela eta, merkatuaren buruan jarri behar den enpresa bat gara.

Euskal Herriko Enpresa

